

Deialdia, euskara itzultzaileen bost lanpostu betetzeko oposizio bidez, ari daitezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura

(Deialdia onetsi zen Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak ekainaren 24an emandako 2477/2024 Ebazpenaren bidez, eta argitara eman zen 2024ko 134. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 1ean)

2. PROBA

1. ARIKETA

12 puntu

(2025/04/05)

**EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIRA PASA
AZTERKETA HASI DELA ESAN ARTE**

1- Zein esaldik erabiltzen ditu Euskaltzaindiak hobetsitako formak?

- a) Hiru urtean behin egiten dute jaialdia; merezi du ikustea.
- b) Hiru urtean behin egiten dute jaialdia; merezi du ikusteak.
- c) Hiru urtero egiten dute jaialdia; merezi du ikustea.
- d) Hiru urtetan behin egiten dute jaialdia; merezi du ikusteak.

2- Aukeratu esaldi zuzena:

- a) Haurdunaldi froga egin du eta, bai, haurdun dago.
- b) Azterketa historiko bat eginez frogatu dituzte hipotesiak.
- c) Nola dakizu ez zaizula gustatzen? Lehenik frogatu egin beharko duzu.
- d) Gaingitu dut titulua lortzeko froga.

3- Zein esalditan dago data zuzen idatzita?

- a) Alabaren jaiotze data 1990ko maiatzaren 21a da.
- b) Fukushimako zentrala 2011ko martxoaren 12an lehertu zen.
- c) 2013eko irailaren 23an, Euskaltzaindiak sari bat jaso zuen.
- d) Liburu horren aurkezpen ekitaldia 2013ko ekainak 18an izan zen.

4- Zein da esaldirik egokiena, Euskaltzaindiaren arabera?

- a) Gazteena hautatu zuten ordezkari bezala eta hizlaririk hoberen bihurtu da.
- b) Gazteena hautatu zuten ordezkari eta hizlaririk hoberen izatera bihurtu da.
- c) Gazteena hautatu zuten ordezkari gisa eta hizlari hoberenetakoan bihurtu da.
- d) Gazteena hautatu zuten ordezkari eta hizlaririk hoberena bihurtu da.

5- Zein da esaldi zuzena?

- a) Eskopetaz tiro egin zion, hilda utziz.
- b) Parisera joan dira, datorren astean itzuliko direlarik.
- c) Gelan sartu zelarik, isiltasun handi bat egin zen.
- d) Leihotik erori zen, hanka hautsi zuelarik.

6- Zein da esaldirik egokiena, Euskaltzaindiaren arabera?

- a) Txokolatea banatzen ari zara? Nik ere bai nahi dut.
- b) Gaztelania hutsean idatzi duzu? Aizu! Euskaraz ere!
- c) Auzi honi dagokionez, esan behar da ere bai genero ikuspegia oso garrantzitsua dela.
- d) Guk ekarriko dugu ogia, eta urdaiazpikoa ere bai.

7- Aukeratu esaldirik egokiena, Euskaltzaindiaren arabera:

- a) Euria ari zuenez, panpinekin jokatu dira etxean.
- b) Pilotariak oso ongi jokatu dute gaurko partida.
- c) Jolas orduan harrapaketa jostatu dute ikasleak.
- d) Eskolako patioan ezkutaketara jokatzen ibili dira haurrak.

8- Euskaltzaindiaren gomendioen arabera, “Esku eta palaz jokatu behar gara txapelketan” esaldia da:

- a) Egokia, izenak juntatu eta kasu- edo postposizio-marka amaieran eman daitekeelako.
- b) Desegokia, *behar izan* aditza du-saileko aditz laguntzaileekin jokatu behar delako beti.
- c) Desegokia, singularreko sintagmetan kasu- edo postposizio-markadun sintagmak juntatzea hobesten baitu.
- d) Egokia, izan ere, euskalki batzuetan *behar izan* aditzak da-saileko laguntzailea har dezake aditz iragangaitzekin.

9- Aukeratu esaldi zuzena:

- a) Hitz arruntekin azaltzen baduzu, hobeki ulertuko da.
- b) Letra larriak erabiliz hobe ikusiko duzu.
- c) Hobeki da horretarako bizikleta erabiltzea.
- d) Realak gaizki jokatu du; hobe esanda, Zaragozak ongi jokatu du.

10- Zein da zuzena?

- a) Lanerako ziurtagiria behar izatekotan, eska iezaiozue arduradunari.
- b) Eguraldi txarra egitekotan, frontoi estalian eginen lirateke haur jokoak.
- c) Jatetxean afaltzekotan, kutxazain bat bilatu eta dirua atera beharko dut.
- d) Ikastaroa ez egitekotan, ez dizuegu dirurik itzuliko.

11- Zein da DESEGOKIA euskara batuan, Euskaltzaindiaren arabera?

- a) Zuretzat gorde dugun zatia hozkailuan dago.
- b) Haiendako prestatu dut afaria.
- c) Zuretzako idatzi dut olerki txiki hau.
- d) Gure haurra nongo? Ona bada, guretako.

12- Aukeratu zein den esaldi zuzena euskara batuan:

- a) Hiru asteko egonaldi batera gonbidatu naute.
- b) Hiru asteko egonaldi batera gonbidatu didate.
- c) Hiru astetako egonaldi batetara gonbidatu naute.
- d) Hiru astetako egonaldi batera gonbidatu didate.

13- Aukeratu zein den esaldi zuzena euskara batuan:

- a) Gauza guzti hauek eztabaidatzeko asmoz bildu dira.
- b) Gauza hauek guztiak eztabaidatzeko asmoz bildu dira.
- c) Gauza hauek guztiak eztabaidatu asmoz bildu dira.
- d) Gauza guzti hauek eztabaidatu asmoz bildu dira.

14- Zeinetan dago marratxoa ongi erabilia?

- a) Asteburu guztia lanean eman dut, baina hona hemen behin-betiko zirriborroa.
- b) Egun horrekin ohitura da etxez-etxe ibiltzea eskean.
- c) Lehoi-kumea lo gelditu zen amaren magalean.
- d) Zer iruditzen zaizu? Ez izan oso zorrotza; oraindik behin-behineko zirriborroa da.

15- Errepideko seinaleetan, nola errotulatu behar da, 5/2018 Foru Dekretuaren arabera?

- a) Altsasu-Alsasua
- b) Hiriberri-Aezkoa
- c) Etxarri / Aranatz
- d) Abaurregaina / Abaurrea Alta

16- Loaldi luze batetik...

- a) esnatzen ari naizen irudipena dut.
- b) esnatzen ari naizelaren irudipena dut.
- c) esnatzen ari naizenaren irudipena dut.
- d) esnatzen ari naizelaz irudipena dut.

17- Zein esaldi da DESEGOKIA Euskaltzaindiaren 196. arauaren arabera?

- a) Unescoren arabera, gaur-gaurkoz, 200.000 glaziar baino gehiago identifikatuta daude munduan.
- b) Faktura horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga falta da.
- c) Pasaportearen edo nortasun-agiri nazionala erakutsi behar da.
- d) Atzo atera zuten osaba ZIUtik.

18- Zein sinbolo dago DESEGOKI idatzia Euskaltzaindiaren 197. arauaren arabera?

- a) Osagarri hori egokitzen joko da bidaia 100 km-tik gorakoa denean.
- b) Ibilgailuak 3.500 kg pisatzen du.
- c) HELMUGARAKO DISTANTZIA: 10 KM
- d) Izozte-tuneletara sartu aurretik, produktuaren tenperatura 3 °C-ra jaisten da.

19- Zein esaldi da egokia Euskaltziandiaren 198. arauaren arabera?

- a) Gabriel Arestiren «Nire aitaren etxea defendituko dut» poema ezaguna *Harri eta Herri* liburuan argitaratu zen lehen aldiz, 1964. urtean.
- b) «*Ekin eta jarrai*» da Euskaltzaindiaren goiburua.
- c) Parisen, *Eiffel* dorrea ikustera joan ginen.
- d) 1987an argitaratu zen paperean *O.E.H.*ren lehen liburukia (*Orotariko Euskal Hiztegia*).

20- Ikuskari eta zuzendariekin elkartuko da kontseilaria. Zenbat lagunekin elkartuko da kontseilaria?

- a) Ikuskari bakarrarekin eta zuzendari bat baino gehiagorekin.
- b) Bat baino gehiago izango dira bai ikuskariak bai zuzendariak.
- c) Ikuskari bakarrarekin eta zuzendari bakarrarekin.
- d) Esaldi honetan ezin da jakin ikuskari bakarrarekin ala gehiagorekin elkartuko den.

21- EBERen arabera, zein da DESEGOKIA?

- a) Atzo ezkerro ez dut beste ezertan pentsatu.
- b) Udan gaude honezkero.
- c) Gure lehengusua atzerrira joan zen bizitzera, eta harrezkero ez dugu askotan ikusten.
- d) Orduz gero, ez da aldatu.

22- EBERen arabera, zein da egokiena?

- a) Korrikalariak prest daude irteerari ekiteko.
- b) Bihar emango zaie hasiera merkealdiei.
- c) Atzera botako nuke horrelako zailtasunak aurkezten dituen proiektu bat.
- d) Langileen arteko komunikazioa ezinbestekoa da lantokian giro ona izateko.

23- EBEren arabera, zein da OKERRA?

- a) Mikel irakasle hartu dute.
- b) Mikel egokitu zaie irakasle.
- c) Mikel irakasle zintzotzat daukate.
- d) Mikel irakasletzat hautatu dute.

24- EBEren arabera, zein da egokia?

- a) Xenofobiarekin amaitu behar da.
- b) Informatikariak programaren instalazioarekin jarraitzen du.
- c) Lan hori bukatzen duzunean, aholkulariarekin hasiko gara bigarren fasea prestatzen.
- d) Bilerarekin bukatzeko, azken puntua jorratuko dugu.

25- Zein puntuazio da zuzena EIMAre arabera?

- a) Nire ustez, gaizki jokatu duen arren, ez zait iruditzen zigorrik jarri behar zaionik.
- b) Nire ustez gaizki jokatu duen arren, ez zait iruditzen zigorrik jarri behar zaionik.
- c) Nire ustez –gaizki jokatu duen arren– ez zait iruditzen zigorrik jarri behar zaionik.
- d) Nire ustez (gaizki jokatu duen arren) ez zait iruditzen zigorrik jarri behar zaionik.

26- Zein esalditan erabili da OKER puntuazioa EBEren arabera?

- a) Han agertu ziren bertsolariak, eta entzuleak txaloka hasi ziren.
- b) Hainbat kontu aipatu ditu; adibidez, puntuazioa.
- c) Helburua lortzeko urratsak aldiz, zailagoak izan ziren.
- d) Kaixo, Mikel!

27- Zeinek du puntuazio OKERRA EBERen arabera?

- a) Pozoiduraren sintomak perretxikoak jan eta sei ordura izaten dira.
- b) Unicefen arabera, gaur egun munduan bizirik dauden 650 milioi emakumetik gora, adingabeak edo haurrak zirenean ezkondu ziren.
- c) Ikusi dugunez, argiaren hedapen-abiadura inguruneak baldintzatuko du.
- d) Ibil zaitez kontuz; bestela, erori egingen zara.

28- Zein da puntuazio zuzena EIMAren arabera?

- a) Atzo, gurasoek eta aiton-amonek argi eta garbi esan zuten, goizean goiz etorriko zirela.
- b) Azpimarratu behar dugu, XIX. mendean Espainiak Amerikako eta Asiako koloniak galdu zituela.
- c) Badira zenbait idazle: Aresti, Mirande, Txillardeg... hori diotenak.
- d) Bolumen txikiko hondakin solidoak, hala nola papera, zigarrokinak...

29- EIMAren irizpideen arabera, zein da zuzena?

- a) E.H.U.ko ikasleek iruzurrezko mezu elektronikoak jaso dituztela salatu dute.
- b) Sistema informatiko berria jarri dute Euskal Herriko Unibertsitateetan.
- c) Joxerra Bengoetxeak irabazi ditu Euskal Herriko Unibertsitateko hauteskundeak.
- d) EHUKo elektrizitate eta elektronika saila.

30- EIMAren irizpideen arabera, zein da OKERRA?

- a) Decartesek zioen bezala: «Pentsatzen dut; hortaz, banaiz».
- b) Zuregatik egin du; ezin diozu ezer esan.
- c) Arlo askotako profesionalak bildu ziren han: irakasleak, kazetariak, psikologoak...
- d) Egun on:
zuengana jotzen dugu gure ikerketa proiektuaren berri emateko.

31- EIMAre irizpideen arabera, zein da zuzena?

- a) Kontsumoko Prezioen Indizeak gora egin du urrian.
- b) Nereak oso argi dauka Traumatologian espezializatu nahi duela.
- c) Herri batzuetan, oso bortitzak izan ziren Darwinismoaren kontrako kritikak.
- d) 1559an kalbinista egin zen Albretoko Joana, Nafarroako erregina, eta berak agindu zion Joanes Leizarragari Testamentu Berria euskarara itzultzeko.

32- Aukeratu gaztelaniazko esaldi hauen artean zein den zuzena:

- a) Soy de los que piensan que la situación puede obedecer a una razón de tipo estratégica.
- b) Soy de los que pienso que la situación puede obedecer a una razón de tipo estratégica.
- c) Soy de los que piensan que la situación puede obedecer a una razón de tipo estratégico.
- d) Soy de los que pienso que la situación puede obedecer a una razón de tipo estratégico.

33- Aukeratu gaztelaniazko esaldi hauen artean zein den zuzena:

- a) Me alegro que seáis felices.
- b) Le preocupa que aún no hayas llegado.
- c) Me olvidé que tenía que llamarte.
- d) Me fijé que tenía manchas en la cara.

34- Aukeratu gaztelaniazko esaldi hauen artean zein den OKERRA:

- a) Los libros que escribe tienen mucho éxito.
- b) Esa es la razón por la cual no voy.
- c) Mira que fácil.
- d) Pregúntale dónde vive.

35- Aukeratu gaztelaniazko esaldi hauen artean zein den egokiena:

- a) Se ha hecho público el decreto nombrando embajador en Londres a mi hermano.
- b) Se ofrece chef sabiendo francés, inglés y alemán.
- c) Se debe dictar una norma con rango de ley que atienda a la doctrina del Consejo de Estado.
- d) Esta es la nueva ley reformando las tarifas aduaneras.

36- Aukeratu gaztelaniazko esaldi hauen artean zein den egokiena:

- a) Me gusta tú estilo de escritura.
- b) Han colocado los libros detrás tuyo, en la estantería.
- c) La Presidenta y el Secretario se han reunido esta mañana.
- d) Este es el libro del que te hablé.

37- EIMArek arabera, zein dago ongi idatzia?

- a) -5 eta +5
- b) -5 eta +5
- c) - 5 eta + 5
- d) Ken bost eta gehi bost

38- EIMArek arabera, zein da zuzena?

- a) Laurogei kilometro orduko abiaduran zihoan.
- b) Laurogei kilometro/orduko abiaduran zihoan.
- c) Orduko laurogei kilometroko abiaduran zihoan.
- d) Kilometroko laurogei orduko abiaduran zihoan.

39- EIMArek arabera, zein da DESEGOKIA?

- a) Etxe horrek hamar metroko luzera du.
- b) Etxe hori hamar metro luze da.
- c) Etxe horrek hamar metro neurtzen ditu.
- d) Topografoak hamar aldiz neurtu du bi mendien arteko distantzia.

40- Zein da egokia?

- a) Et, et, et! Ez da egia! Nik oso gauza diferentea esan dut!
- b) Ikuspegi anitza izanen dugu, eta estrategia ezberdinak erabiliko ditugu.
- c) Zuri ere berdina esanen dizut: nahiko ongi dago, baina ez da perfektua.
- d) Hainbat tokietan ezkutatu ditugu opariak, eta lehiatzaileek aurkitu egin behar dituzte.

41- Zein da zuzena?

- a) Hogeitaka urtez ibili naiz artzain.
- b) Mila bostehun sarrera saldu ditugunez, nahikoa diru bildu dugu.
- c) Kroketa guztiak jan behar dituzu? Egiaz? Hogeitabost izanen dira eta!
- d) Oso ongi ibili dira gaurko partidari. Hiru bi irabazi dute.

42- Zein da egokiena?

- a) Edabe magikoa hartu, eta munstro batean bihurtu zen.
- b) Behin batez, herri txiki batean, zapatari txiki bat bizi zen.
- c) Etorkizun batean, azti bat jaioko da.
- d) Iratxo bat bihurtu zen.

43- Zein da zuzena?

- a) Telebista ikusi al duzu? Badakizu gertatu dena?
- b) Bazenekien? Kontinentearen % 5a izotza da.
- c) Zer ordu da? Dagoeneko hasiko zen saioa.
- d) Irailaren hogeita bostean, asteartearekin, hasiko da ekimena.

44- Zein da DESEGOKIA?

- a) Hain berandu egin zaie, ez direla etorri.
- b) Plazarik ere ez du, hain txikia da herria.
- c) Hain zaila da, ezen inork ez baitu ulertu.
- d) Hain txikia zen etxea, ez baitzuen egongelarik ere.

45- Zein da egokiena?

- a) Langileen erdiak euskaldunak diren bitartean, beste erdiak, erdaldunak.
- b) Jana lizundu egin zen, eta oso gaizki usaintzen zuen.
- c) Musika taldeak Lesakan eskaini zuen lehenbiziko kontzertua, eta sekulako arrakasta izan zuen.
- d) Atezainari, mutikotatik ezagutzen baitzuen, ez zitzaion axola izan.

46- Zein da egokiena?

- a) Irrikatan nago filma ikusteko. Gogo asko dut, estreinatuko zutela jakin nuenetik.
- b) Bai, bihar mendira joanen gara, baina ez pentsa gogo handiegirik dudarik.
- c) Euria gogotik ari du; etxera sartu beharko dugu.
- d) Gure herriko atleta ezagunak garaipen berri bat lortu du gaurko lasterketan.

47- Zein da egokiena?

- a) Txiki zituen oinetakoak.
- b) Mendian ibiliko da baita ere.
- c) Pattal samar etorri zen, eta ez zuen gauza gehiegirik jan.
- d) Gure lorategietan, txantxangorria eta zozoa bezalako txoriak izaten dira.

48- Zein da egokiena?

- a) Espero dut gaurko oposizioa ongi egitea.
- b) Emakumeen sailera joateko, igo bosgarren landarera.
- c) Oso ongi egin dut euskarako azterketa, baina ingelerakoa, berriz, gaizki samar.
- d) Ez dugu horrelako akordiorik onartuko, eta manifestapenerako deia egingen dugu.

49- Zein da DESEGOKIA?

- a) Berrikitan irabazi du saria, eta oso pozik dago.
- b) Ni horren alde nago; zu, berriz, kontra.
- c) Berriz ere euria ekarriko du ekaitzak.
- d) Tanto berri bat egin du. Baietz irabazi!

50- Zein da egokia?

- a) Pixkanaka gela guztiak arbel elektronikoez hornitzeko aukera dago.
- b) Erraza da besteren etxea gobernatzea.
- c) Zer den "euskañola"? Erdaraz egitea euskarazko ukituez zipriztindurik.
- d) Ez dakizu zenbat tontakeria esan zituen! Lotsa asko pasatu nuen.

51- Zein da egokia?

- a) Autoz etorri zara? Eramaten nauzu, otoi?
- b) Oso kezkarria da 12 eta 15 urte bitarteko nerabeen artean ematen ari den suizidio kopurua.
- c) Hara! Giltzak atzendu zaizkit. Ireki diezadakezu, mesedez?
- d) Nahikoa da, mesedez! Beti txantxetan zabilta!

52- Zein da egokiena?

- a) Jolas-parke berria egin dute! Goazen probatzera?
- b) Xalbador 1920an jaio zen, eta 1976an hil.
- c) Hastera doa bilera. Bueno, zer, goaz?
- d) Begira zenbat hodei! Beraz, ekaitza omen dator.

53- Zein da egokiena?

- a) Kaixo! Dago Eneko?
- b) Kaixo! Badago Eneko?
- c) Kaixo! Hor dago Eneko?
- d) Kaixo! Eneko dago?

54- Zein da egokiena?

- a) Mesede bat egingo bazenit, eskertuko dizut.
- b) Esan zuen berak bilduko zuela dena, baina ez du egin.
- c) Herriko futbol taldean dabil, aurrelari bezala, baina ez du golik sartzen.
- d) Egundoko haizea altxatu zen!

55- Zein da egokiena?

- a) Fonema kontsonantikoak 24 dira, eta bokalikoak 5.
- b) Hau hotza! Gustura joango nintzen Kubara orain.
- c) Bi orduz egon ginen zain, baina ez zen inor ez etorri.
- d) Autonomia kalea da famatuena, baina ere daude beste kale batzuk.

56- Zein da egokiena?

- a) Luze egon zara kanpoan, eta faltan bota zaitugu.
- b) Gero eta gehiago ikasi, nota hobeak aterako dituzu.
- c) Goiz bukatzen badugu, bilera eta gero kalera joanen gara.
- d) Beharrik gero etorriko den!

57- Zein da egokiena?

- a) Iruindar kaleak oso politak egoten dira udazkenean.
- b) Joan den astean izan genuen laneko hitzordua.
- c) Bi astetik behin egiten da nekazal produktuen azoka txikia.
- d) Epaketan delituaren probak aurkeztu, eta erruduntzat jo zuten.

58- Zer esan du alkateak?

- a) "Oraintxe bertan erabaki egin da herri honen etorkizuna".
- b) "Horrelaxe erabaki egin behar dira gauzak gure herrian".
- c) "Hementxe bertan erabaki egin behar dira gauzak".
- d) "Erabaki egin behar dugu herrian zer etorkizun nahi dugun".

59- “Autoan nindoala, harri bat erori da errepidera;...” Zein da jarraipen egokiena?

- a) non eta aurreko kristala ez didan hautsi!
- b) aurreko kristala hautsi ez didanean!
- c) kristala hautsi ez didanez!
- d) noiz eta kristala hautsi ez zaidan!

60- Alajaina! Bai ederki ... soineko horrek!

- a) jotzen dizun
- b) egiten dizun
- c) ematen dizun
- d) jartzen zaituen